



Ebazpena, 2017ko ekainaren 27koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, 2017/2018 ikasturterako eskola txikietan hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko deialdia behin betiko ebazten duen Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko ekainaren 23ko Ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez Eskola txikietan, 2017/2018 ikasturterako, hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko deialdia behin betiko ebatzi zen.

Aipatu ebazpenean zuzendu beharreko hutsak atzeman dira eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 109.2. artikuluan dioenari jarraiki, "Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egitezetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Kasu honetan, ez da bidezkoa lanpostu bat esleitzea zerbitzu eginkizunetan Amaia Ferreira Irondori, beste lanpostu bat esleitu zaiolako zerbitzu eginkizunetan, 2017-18 ikasturterako, honako ebazpen honen bidez: Hamaika Esku proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetan hainbat lanpostu betetzeko deialdia behin betiko ebazten duen Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko ekainaren 23ko Ebazpena.

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2017ko ekainaren 23ko Ebazpenaren I Eranskina aldatzea ondoren ezarritakoaren arabera:

Honako hau esaten denean:

"Ikastetxea: CEIP LABASTIDA HLHI

Lanpostua: Haur Hezkuntza

- TOMÉ ARRABAL, PATRICIA

Lanpostua: Lehen Hezkuntza

- LLOPIS ECHEBERRIA, GORKA
- FERREIRA IRIONDO, AMAIA"

Honako hau esan behar da:

"Ikastetxea: CEIP LABASTIDA HLHI

Lanpostua: Haur Hezkuntza

- TOMÉ ARRABAL, PATRICIA

Lanpostua: Lehen Hezkuntza

- LLOPIS ECHEBERRIA, GORKA
- LOPEZ CONDE OIANE"



Bigarrena.- Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko ekainaren 23ko Ebazpenaren II. Eranskineko (behin betiko baztertutako eskaerak) "Araba" atalean honako hau gehitzea:

"FERREIRA IRIONDO, AMAIA

Arrazoia: Izendatua izan da deialdi honetan deitutakoez bestelako lanpostu baterako zerbitzu-eginkizunean, honako ebazpen honen arabera: Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez Eskola txikietan, 2017/2018 ikasturterako, hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenez betetzeko deialdia behin betiko ebazten duena.

ERREKURTSOAK

Administrazio bidea amaitzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121.artikuluari eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 27an.

Konrado Mugertza Urkidi
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA